

**CARITASEN EGUNA:
«HATOR!. ESTAS EN CASA»**

2024KO MARTXOAREN 17A



**JORNADA DE CÁRITAS:
«HATOR!. ESTAS EN CASA»**

17 DE MARZO DE 2024

**GARIZUMAKO 5. IGANDEA
(B)**

**DOMINGO 5 DE
CUARESMA (B)**

Liturgia lagungarriak

Subsidios litúrgicos

Atarikoak:

- Gogoratu ezinbestekoa dala lagungarriok alkarte bakotxaren gorabeheretara moldatzea luzera eta hizkerari dagokienez.
- Ondo legoke Caritaseko boluntarioek gaurko ospakizunetan eraginkortasunez parte hartzea.
- Egun egokia da gaurkoa, eukaristia liturgia beren-beregi zaintzeko: ogi eta ardaoaren aurkezpena eta altararen behealdean itziko dan kolektarena. Holan egiten bada, dirubatzearren arrazoiak azaltzeko oharra irakurri arte ez gara dirua batzen hasiko. Eukaristia oititza nabarmendu gorespenak kantatuz, ogia era esanguratsuan zatitu "Jaungoikoaren Bildotsa" abesten dan bitartean, jaunartzea...

Notas previas:

- Recordemos la necesidad de que estos subsidios se adapten en su extensión y lenguaje a las circunstancias de cada comunidad.
- Estaría bien que el voluntariado de Caritas participara activamente en las celebraciones de hoy.
- Hoy es un día apropiado para cuidar especialmente la liturgia eucarística: la presentación del pan y el vino y también de la colecta, que se deja a los pies del altar. Si se hace así quizá convendría no empezar a hacerla hasta que se haya leído pausadamente la monición que la motiva. Destacar la plegaria eucarística con las aclamaciones cantadas, la fracción del pan significativamente hecha mientras se canta "Cordero de Dios", la comunión...

SARRERAKO OHARRA

Anai-arrebok: Garizuma aldiko bosgarren domekara heldu gara eta, ondorioz, Jaun Berbiztuagaz bat egiteko aukerea emongo deuskun Pazkoranzko bidearen azken txanpan gagoz. Baina topaketa horren aurretik, ezinbestekoa dogu Jesusen irakaspena ulertzea: galburuak, lurrera jausi eta hiltan danean emoten dau frutua.

Gizakiak Jaungoikoagaz aurkitzeko leku barria dau: Jesus bera. Hona hemen eginkizun bete-betea: Jesus gure bizitzetan onartzea.

MONICIÓN INICIAL

Hermanas y hermanos: Hoy celebramos el quinto domingo de la Cuaresma, finalizando el camino de preparación a la Pascua, para vivir el encuentro con el Señor Resucitado. Pero antes, necesitamos comprender y asumir lo que Jesús quiere enseñarnos con la imagen del grano de trigo, que solo cuando cae en tierra y muere, da mucho fruto.

Gizakiak Jaungoikoagaz aurkitzeko leku barria Jesus berbera da. Hona hemen eginkizun bete-betea: Jesus gure bizitzetan onartzea.

Izadiaren eta izaki bizidunen arteko lotura aintzat hartetik eratorritako kontzeptua dan osoko ekologia aldarrikatzen dau Eleizbarrutiko Caritasen kanpainak. Alkarregazko mendekotasun honek gure bizitzaren alderdi guztietan eragiten dau. Bizi garan mundu natural eta soziala zaintzean, pertsonak zaintzean eta pobretasunaren aurka konprometitzean datza. Osoko ekologia alkarte jardute lez hartzea da.

Ospatu daigun pozez eta alkartean anai eta arrebez osatutako gizartea, batez be ahulenei arreta eskaintzen deutsen gizartea gura dauan eta horren aldeko konpromisoa hartzen dauan Jainkoarenganako fedea.

SARRERAKO KANTUA

ABADEAREN AGURRA

Jesukristo Biziaren Jaunaren grazia eta bakea, izan bedi zuekin.

DAMU OTOITZA

EBenetako bihotz-barritzea, gure bihotzak eta bizitzak aldatzea eta gure pekatuen parkamena eskatuko deutsagu Jaunari [Isilunea...]

- Autortzen deusat...
- Jaungoiko ahalguztiduna...
- Erruki, Jauna

OHARRA 1. IRAKURGAIRI

Lehenengo irakurgaiari, Jeremias profetak iragarpena egiten dau: Jaungoikoak itun barria egingo dau bere herriagaz, baina Itun hau ez da harrian idatziko, gizon eta emakume bakotxaren bihotzean baino.

OHARRA 2. IRAKURGAIRI

Bigarren irakurgaiari, Hebrearrei idatzitako gutunaren egileak Kristoren abadetzaren misterioa aurkeztuko dau: Aitagazko hartu-emon zuzen eta pertsonalean bizi izan zan, beti haren hitza entzunez eta haren borondatea betez.

La campaña de Cáritas Diocesana nos invita a la ecología integral que es un concepto derivado de la observación de la interconexión entre el mundo natural y los seres humanos. Esa interdependencia afecta a todos los aspectos de nuestra vida. Se trata de cuidar del mundo natural y social en el que vivimos, cuidar de las personas, comprometernos contra la pobreza. Es una apuesta por la ecología integral como práctica comunitaria.

Celebremos con alegría y en comunidad, la fe compartida en un Dios que anhela y se compromete cada día por una sociedad fraterna en la que se presta especial atención a las personas más frágiles.

CANTO DE ENTRADA

SALUDO DEL PRESIDENTE

Jesucristo, el Señor, fuerza y sabiduría de Dios, esté con todos vosotros.

ACTO PENITENCIAL

Pidamos que el Señor nos conceda una auténtica conversión, que transforme nuestros corazones y nuestras vidas y que perdone nuestros pecados. (Pausa)

- Yo confieso...
- Dios todopoderoso...
- Erruki, Jauna / Señor, ten piedad

MONICIÓN A LA 1ª LECTURA

En la primera lectura, el profeta Jeremías anuncia una alianza nueva de Dios con su pueblo. Pero esta Alianza ya no se escribirá en una piedra, sino en cada corazón humano.

MONICIÓN A LA 2ª LECTURA

En la segunda lectura, el autor de la carta a los Hebreos, presenta el misterio del sacerdocio de Cristo: Él vivió en relación directa y personal con el Padre, escuchando siempre su palabra y buscando siempre su voluntad.

OHARRAK HOMILIARAKO

Garizuma-aldiko ibilbideko azken txanpan gagoz. Hasieratik entzun dogu norbere bizitza aldatzeko, bihotz osoz Jaunarengana bihurtzeko, barriro be entzute-jarrera hartzeko deia. Ebanjelioaren eskutik, greko hareen berbak geure ahotan jarriko doguz: "Jesus ikusi gura dotu". Horixe da egin behar dogun eskaria.

Ebanjelioan, hauxe dinosku Jesusek behin baino gehiagotan: "Bere bizia maite dauanak galdu egingo dau; baina mundu honetan bere bizia gauza txikitzat hartzen dauanak betiko bizitzarako gordeko dau". Eta gauzak argiago azaltzeko, galburuaren irudia darabil: hiltzen ez bada antzu geratzen da, baina hiltzen bada, fruitu ugari emoten dau. Jesusen bizitza osoa laburtzen dauan metafora da. Bere maitasunak bakardadea gainditu egiten dau, nahiz eta atsekabe, sakrifizio, abandonu bako maitasunik ez egon. Jesus, bizia galtzeko unea gainean dauala sentituta, asaldatu egiten da, azken ordua hurbil dau-eta. Eta Ebanjelioa iragarten dan bakotxean, Jaunaren garaia da. Bai, heldu da garaia, hauxe da, dino Jesusek.

Hauxe da garai egokia; ez dau geure buruarenganako maitasunak nagusitu behar, gure jokaera eta ohituren senetzko babesak ez dau nagusitu behar gure bizitzan. Jesusek hori ulertarazoteko, norbere burua gaitzesteaz dihardu. Benetan, Berak, geure burua maitatzearen kontrakoa egitera bultzatu gura gaitu, eta horrek, guretzat, gorroto kutsua izan leike. Baina danok dakigu nork bere burua maitatzea, orokorrean uste danaren aurka, beti ez dala gure bizitzarako aholkularirik onena, beti ez deuskula salbatzeko bidea erakusten.

Horregaitik Jesusek, bere atzetik jarraitzeko dinotse entzuleei: "Nire zerbitzari izan gura dauanak, jarraitu beist eta, Ni nagoan lekuan, han izango da nire zerbitzaria be". Jesusen atzetik jarraitzea, Ebanjelioaren esana egitea da, Jainkoaren hitzaren gidarritza onartzea. Bera da lehenengoa eredu izaten. Hauxe idatzi eban Hebrearrei zuzendutako gutunaren egileak: "Semea izan arren, oinazearen oinazez ikasi eban obeditzen". Eta egun gitxi barru, olibondoen ortuan, estu eta larri, zera esango deutso Aitari: "Ez bedi egin nire nahia, zeurea baino". Esanekotasun horren eraginez, Hebrearren gutunean aurrerago esaten danez: "Osotasun beteko izakera lorturik, betiko salbazinoaren iturri bihurtu zan berari obeditzen deutsoen guztientzat".

SUGERENCIAS PARA LA HOMILÍA

El camino cuaresmal está llegando a su fin. Desde el comienzo ha resonado la invitación a convertir la propia vida, a volver al Señor con todo el corazón, a ponerse nuevamente a escucharlo. El Evangelio nos sale al encuentro y pone en nuestros labios las palabras de aquellos griegos: "Queremos ver a Jesús". Es la petición que debemos hacer.

En el Evangelio Jesús nos repite: "El que se ama a sí mismo, se pierde y el que se aborrece a sí mismo en este mundo, en este mundo, se guardará para la vida eterna". Y para hacer más claro su pensamiento pone el ejemplo del grano de trigo: si no muere se queda infecundo, pero si muere da mucho fruto. Es una metáfora que resume toda la vida de Jesús. Su amor vence toda soledad, aunque el amor no existe sin dolor, sin sacrificio, sin abandono. Jesús, sintiendo que llega el momento de perder su vida se turba, ve acercarse su última hora. Y cada vez que se anuncia el Evangelio llega la hora del Señor. Sí, ha llegado la hora, es esta, dice Jesús.

Este es el tiempo oportuno, es la hora en la que no debe prevalecer el amor por nosotros mismos, la hora en la que la instintiva defensa de nuestros comportamientos y costumbres no debe tener el predominio en nuestra vida. Jesús, para hacérselo comprender, llega a hablar de aborrecerse a sí mismo. En verdad él quiere exhortarnos a que hagamos exactamente lo contrario al amor por nosotros mismos, y eso puede parecer precisamente como odio a nuestros ojos. Pero todos sabemos por experiencia propia que el amor por uno mismo, contrariamente a lo que se cree generalmente, no siempre es el mejor consejero de nuestra vida, quien sabe indicarnos el camino para salvarla.

Por eso Jesús exhorta a quienes le escuchan a seguirlo: "El que quiera servirme, que me siga, y donde esté yo, allí también estará mi servidor". Seguir a Jesús quiere decir obedecer al Evangelio, dejarse guiar por la palabra de Dios. Él es el primero en dar ejemplo. Escribe el autor de la Carta a los Hebreos: "Aun siendo Hijo, aprendió sufriendo a obedecer". Y dentro de pocos días, en el huerto de los olivos, preso de la angustia dirá al Padre: "No se haga mi voluntad, sino la tuya". Esta obediencia, -continúa la Carta a los Hebreos- hizo que: "Llevado a la consumación, se convirtió, para todos los que le obedecen, en autor de salvación eterna".

CARITASEN KANPAINA

Ebanjelioaganako esanekotasuna da Jesusen ikasleei dagokien bikaintasunerako bidea: Jaunaren Hitzaz entzuteak bikain egiten gaitu geu be, geure burua maitatzeari itzi eta Jaunarengana gero eta gehiago hurreratzen erakusten deuskulako.

Egun bik lagunduko deuskue entzundakoa zehazten eta agertzera emoten:

1. San Jose egunez, Eleizbarrutietako Misinoen eguna ospatuko da. Misiolarien eta bizi diran lekuen alde otoitz egingo dogu. Besteentzat bizi izatearen, norbere ongizatearen, eta askotan segurtasunaren, gaintetik bihotz-zabaltasun osoz nork bere burua eskaintzearen eredu bikain dira. Erabateko emotea da. Euren bizitzak frutua emoten dau, ez da-eta antzu.

1. Caritasen gaurko kanpainak be atara eta keinu zehatzak egitera bultzatu gura gaitu. Ezin izango dogu aldaketa handirik, ikusgarriarik, nabarmenik egin. Baina, seguruenik, aldaketa iraunkorrak, benetakoak eta oso garrantzitsuak izango dira mundu hobearen eraikuntzari, gure munduan bidegabekeria eragiten eta iraunarazoten daben egituren aldaketari begira.

Jesus ikusi gura dogu eta hemen, Eukaristian aurkituko dogu. Horregaitik, hemen eta orain, keinu hori errepikatuz, Jesusek bere burua gure alde emon ebaneko, bere kurutzearen eta berbikundearen bidez askatu gintueneko garaia barritu eta gaurkotu egingo dogu.

JAINKOAREN HERRIAREN OTOITZA

Ejo daigun Jainko gure Aitarengana gure otoitz eta beharrianak aurkezteko.

- Eleizaren alde, on, askatasun, maitasun eta errukia aurkitzeko aukera emoten daben senide alkarteak eraiki daizan. **Eskatu deiogun Jaunari.**
- Munduko agintarien alde, bake eta zuzentasuna bilatu daiezan. **Eskatu deiogun Jaunari.**

CAMPAÑA DE CÁRITAS

La obediencia al Evangelio es el camino de la perfección al cual están llamados los discípulos de Jesús: la escucha de la Palabra del Señor nos hace perfectos también a nosotros, porque nos enseña a no amarnos a nosotros mismos y a acercarnos cada vez más al Señor.

Dos jornadas nos ayudan a concretar y hacer visible lo que hemos escuchado:

- El día de san José será la jornada de las Misiones Diocesanas. Oraremos por nuestros misioneros y misioneras y por los lugares en los que se encuentran. Son un magnífico ejemplo de quienes viven para los demás, se entregan con total generosidad por encima de su bienestar personal e, incluso, de su propia seguridad. Se dan sin reserva. Su vida da fruto porque no es grano infecundo.
- La jornada de Caritas de hoy también nos invita a salir aportando gestos concretos. Quizá no sean cambios grandes, muy visibles, noticiables. Pero seguramente, son cambios duraderos, auténticos y muy importantes en la construcción de un mundo bueno, en la conversión de esas estructuras que provocan y mantienen la injusticia en nuestro mundo.

Queremos ver a Jesús y lo encontramos aquí, en la eucaristía. Por eso, aquí y ahora, nosotros, repitiendo ese gesto, renovamos y actualizamos la hora de Jesús que se entregó por nosotros y que por su cruz y su resurrección nos ha librado.

ORACIÓN UNIVERSAL

Acudamos ahora a Dios, nuestro Padre, y presentémosle nuestras oraciones y necesidades.

- Por la Iglesia, para que sienta la llamada a construir comunidades fraternas en las que poder encontrar el bien, la libertad, el amor y la misericordia. **Roguemos al Señor / Eskatu deiogun Jaunari.**
- Por quienes gobiernan en el mundo, para que busquen siempre la paz y la justicia. **Roguemos al Señor / Eskatu deiogun Jaunari.**



CARITASEN KANPAINA

- Oinazetan, bakarrik, baztertuta, langabezia, gaixorik dagozanen alde, gizartearen harrera eta zaintza izan daien beti. **Eskatu deiogun Jaunari.**
- Gu guztion alde, Frantzisko aita santuak dinoan lez, "zaindu daigun gizon, emakume, ume eta nagusi bakotxaren ahultasuna alkartasun-senez, arduraz eta samariar onaren gertutasunaz". **Eskatu deiogun Jaunari.**

Jainko gure Jauna, kurutzearen jakinduria geure egin daigula eta, norberekoikeriak gaudituta, Zure tenplu bizi izan gaitezala. Jesukristo gure Jaunaren bitartez.

CARITASEN ALDE DIRUA BATU AURREKO OHARRA

Gauza asko aldatu geinke gure eguneroko bizitzan gure inguruan, batez be gure bizimoduari eta kontsumoari dagokienez. Keinu honeek ezinbesteko eta eraldatzaile dira.

Diru-laguntza emon geinke orain. Eskerrik asko alkartasunez jokatzegaitik.

JAUNARTZE ONDORENGO ISILUNEAN

Frantzisko aita santuak Garizuma-aldirako idatzi dauan mezutik hartuta.

«Ekintzara joteko ordua da, eta Garizuma-aldian, gelditzeko aldia be bada. Otoitzean gelditu, Jainkoaren Hitza nork bere egiteko, eta samariarra lez gelditu, zaurituta dagoan anai-arrebaren aurrean. Jainkoarenganako eta hurkoarenganako maitasuna, maitasun bakarra da. Beste jainkorik ez izatea, Jainkoaren aurrean, hurkoarengan gelditzea da. Horregaitik, otoitza, limosna eta baraua ez dira bereizitako hiru jarduera, irekitze-, huste-mobimentu bakarra baino: utikan estutzen gaituen sasijainkoak!, utikan zapaltzen gaituen atxikimenduak! Orduan, gaitasuna galdu eta isolatu egin dan bihotza, esnatu egingo da. Beraz, abiadura moteldu eta gelditu. Garizuma-aldiak barriro agertuko deuskun kontenplazinozko alderdiak indar barriak mobilizatuko ditu. Jaunaren aurrean, anai-arreba bihurtuko gara, besteak bizitasun barriak antzemango doguz, mehatxu eta etsaien orde, bidelagunak aurkituko doguz. Hauxe da Jainkoaren ametsa, morrontzatic ataratean hartuko dogun bidea agindutako lurrera joteko».

CAMPAÑA DE CÁRITAS

- Por las personas que sufren, padecen la soledad, la exclusión, el paro, enfermedades graves, para que la sociedad siempre las acoga y cuide y se destinen suficientes medios para ello. **Roguemos al Señor / Eskatu deiogun Jaunari.**
- Por todos nosotros, para que, en palabras del papa Francisco, "cuidemos la fragilidad de cada hombre, de cada mujer, de cada niño y de cada anciano, con esa actitud solidaria y atenta, la actitud de proximidad del buen samaritano". **Roguemos al Señor / Eskatu deiogun Jaunari.**

Señor, Dios nuestro, haz que penetremos en la sabiduría de la cruz, para que libres de todo egoísmo, lleguemos a ser aquel templo vivo en el que Tú deseas recibir nuestra adoración. Por Jesucristo nuestro Señor.

MONICIÓN A LA COLECTA EN FAVOR DE CÁRITAS

Hay muchas cosas que podemos transformar en el día a día de nuestro entorno más próximo y que tienen que ver con cambios en el estilo de vida y de consumo. Estos gestos son a la vez imprescindibles y transformadores,...

Podemos apoyar con la colecta que ahora realizamos. Gracias por vuestra solidaridad.

EN EL SILENCIO DESPUÉS DE LA COMUNIÓN

Del mensaje del papa Francisco para esta Cuaresma.

«Es tiempo de actuar, y en Cuaresma actuar es también detenerse. Detenerse en oración, para acoger la Palabra de Dios, y detenerse como el samaritano, ante el hermano herido. El amor a Dios y al prójimo es un único amor. No tener otros dioses es detenerse ante la presencia de Dios, en la carne del prójimo. Por eso la oración, la limosna y el ayuno no son tres ejercicios independientes, sino un único movimiento de apertura, de vaciamiento: fuera los ídolos que nos agobian, fuera los apegos que nos aprisionan. Entonces el corazón atrofiado y aislado se despertará. Por tanto, desacelerar y detenerse. La dimensión contemplativa de la vida, que la Cuaresma nos hará redescubrir, movilizará nuevas energías. Delante de la presencia de Dios nos convertimos en hermanas y hermanos, percibimos a los demás con nueva intensidad; en lugar de amenazas y enemigos encontramos compañeras y compañeros de viaje. Este es el sueño de Dios, la tierra prometida hacia la que marchamos cuando salimos de la esclavitud».

ABADEAREN AGURRA (BEDEINKAPENAREN OSTEAN)

Ez daigun ahaztu Jainkoaren bizileku garana. Jauna behar daben eta haren bila dabiltzanek ikusiko ahal dabe Bera eta bere maitasuna gure bizitzaren bidez.

Zoaze Jaunaren bakean!

DESPEDIDA DEL PRESIDENTE (DESPUÉS DE LA BENDICIÓN)

No olvidemos que somos templos de Dios. Ojalá que quienes necesitan y buscan al Señor puedan descubrir, por medio de nuestra vida, su presencia y su amor.

Podéis ir en paz.



Hator!
Estás en casa
#Bagara

"Natura zaintzea elkarrekin bizitzeko eta elkartasunean aritzeko gaitasuna eskatzen duen bizimodu baten parte da."

(Laudato Si 228)

"El cuidado de la naturaleza es parte de un estilo de vida que implica capacidad de convivencia y de comunión."

(Laudato Si 228)

caritasbi.org